

## VI. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

### Otoitza

Jainko gure Jauna,  
 bihotz garbi eta zintzoetan duzu zeure atsegina;  
 egizu, zure grazian bizi gaitezela,  
 Zu gure bihotzetan bizi zaitezen.  
 Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Jr 17, 5-8

*Madarikatua, bere itxaropen gizakia duena.  
 Bedeinkatua, bere itxaropen Jauna duena.*

Jeremias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna:  
 «Madarikatua, bere itxaropen gizakia duena,  
 bere indarra haragian bilatzen  
 eta bihotza Jaunarengandik urrutiratzen duena.  
 Astalarra basamortuan bezala izango da;  
 hona etortzen bazaio ere, ez du ikusiko;  
 basamortu kiskalian itsatsia dago,  
 inor bizi ez den lur gazian.  
 Bedeinkatua, Jaunarengan uste duen gizakia,  
 bere itxaropen Jauna duena.  
 Ur ertzetan landatutako zuhaitza bezala da,  
 ur bizen ondoan botako du bere zuztarra;  
 ez du beroaren beldurrik,  
 haren hostoak beti hezerik;  
 lehor urtean ez dio axolarik;  
 ez dio utziko fruitu emateari».

ERANTZUN SALMOA: Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6

R/. **Bai dohatsu,  
 Jaunagan itxaropide duen gizakia!**

Bai dohatsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez zaiona,  
 hobendunen bidean ez dabilena,

lotsagabeen batzarrean esertzen ez dena.  
Ostera, Jaunaren legean atsegin duena,  
gau eta egun Haren legea hausnartzen duena. R/.

Ur ertzean aldaturiko zuhaitza bezala izango da,  
bere garaian ematen du fruitua;  
eta historik ihartzen ez zaio:  
zeregin guztietan ongi doakio. R/.

Ez horrela gaiztoak, ez horrela:  
haizeak daraman lastoa bezala izango dira.  
Zintzoen bidezain Jauna baitago,  
gaiztoen bidea, berriz, hondamendirako. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 15, 12. 16-20

*Kristo biztu ez bada, hutsa da zuen sinestea.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Kristo hilen artetik biztu zela hotsegiten denez gero, nolaz esaten dute zuetako batzuek, hilak ez direla bizten?

Izan ere, hilak bizten ez badira, Kristo ere ez da biztu. Eta Kristo biztu ez bada, hutsa da zuen sinestea; oraindik zuen bekatuetan zaudete. Eta Kristorengan lo daudenak ere, galduak dira. Bizitza honetarako bakarrik baldin badugu Kristorengan itxaropen, gu gara gizaki guztietan errukarrienak.

Baina ez! Biztu da Kristo hilen artetik, lo daudenetan lehen fruitu bezala.

EBANJELIOA: Lk 6, 17. 20-26

**Aleluia:** Lk 6, 23ab

R/. Aleluia.

V/. Poztu zaitezte eta alaitu:

haundia izango da eta zuen saria zeruetan. R/.

*Zorionekoak, behartsu zaretenak.*

*Zoritxarrekoak zuek, aberatsak.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesus Hamabiekin menditik jaitsi eta zelai batean gelditu zen.

herriko jendetzarekin; Judea guztitik, Jerusalemik, eta Tiro eta Sidongo itsas bazterretatik etorriak bainziren Hari entzutera.

Jesusek, ikasleengana begiak jasorik, honela esan zien:

«Zorionekoak, behartsu zaretenak;

zuen baita Jainkoaren erreinua.

Zorionekoak, orain goserik zaudetenak;

aseko bainzarete.

Zorionekoak, orain negar egiten duzuenak;

barre egingo duzue eta.

Zorionekoak zuek, Gizonaren Semearengatik gizakiek gorrotatzen, beren artetik botatzen eta biraoka hartzen zaituztenean, eta zuen izena lotsagarritzat baztertzen dutenean. Poztu zaitezte egun hartan, eta alaitu, haundia izango da eta zuen saria zeruetan; horien gurasoek ere beste horrenbeste egin bainzuten profetekin.

Baina zoritxarrekoak zuek, aberatsak;

hartua baituzue zeuen poza.

Zoritxarrekoak, orain aserik zaudetenak;

gosea izango baituzue.

Zoritxarrekoak, orain barre egiten duzuenak;

intziri eta negar egingo baituzue.

Zoritxarrekoak zuek, gizaki guztiak zuentzat ondo mintzaten direnean. Horien gurasoek ere beste horrenbeste egin bainzuten sasiprofetekin».

### **Oparigaien gainekoa**

Eukaristia honek, Jauna, garbi gaitzala eta berritu;

eta zure nahia betetzen dutenentzat

izan dadila betiko sariaren iturri.

Jesu Kristo.

### **Jaunartze ondorengoa**

Zeruko ogia eman diguzu janari, Jauna;

egizu, egiazko biziaren iturriak bila ditzagula beti.

Jesu Kristo.